

Komunikazio kanalak:

Sortutako aplikazioa ezistitzen dela bezeroei jakinarazteko, hainbat kanal edo bide aukeratu ditugu:

Lehenengoa sare sozialak izango lirateke, jende gaztearentzako bideratutako iragarkiak. Egun, jende gehienak sare sozialen inguruan egiten du bere bizitza. Egunean gertatzen zaiena bertan partekatzen dute eta aurkitzen dituzten gauza berriak besteei kontatzen dizkiete. Gainera Instagram eta Twitter bezalakoek mundu mailan jendea konektatzeko aukera ematen du eta hauek gure aplikazio berriaren berri modu eraginor eta azkar batean egingo lukete.

Bigarrena telebista eta Youtuben agertzeko iragarkiak egingo ditugu, hauek helduentzat izango lirateke, telebidista gehien ikusten dutenak baitira. Pertsona askok Youtube azalpenak ematen dituzten bidioak ikusten dituzte, nola sukaldatu etab. Horregatik, nahiz eta jende gaztea ere aplikazio hau erabili, honen bidez helduengana ere irits gaitzke. Iragarkiak bidioen tartean sartuz.

Azkenekoa berriz irratia izango da. Azkeneko hau jende helduagoarentzat bideratuta egongo da, oro har hauek direlako irratia gehien entzuten dutenak. Beraz, gure produktua ezagutzera eramango diete. Irratiko iragarkien bidez ere, jende heldu eta gazteek entzun dezakete beraz haietzako ere balioko du iragarki honek.

Honenbestez, talde desberdinetako jendeak ikusi edo entzun ahal izango du gure asmakizunaren berri.

Banaketa kanala:

Guk sortutakoa zerbitzuak izango direnez, aplikazioaren bidez banatuko zaie. Langileek bezeroei beharrezkoak diren zerbitzuak eskeiniko dizkiete eta gero erabiltzaileek ordainketa hauei egingo die. Langileak, kotxe motor edo denadelakoa erabiliko du alde batetik bestera mugitzeko. Enpresak eskeiniko dio ibilgailua langileari.